


2019

TAILERRA



Gizon nerabeekin berdintasun eta maskulinitatearen gaineko lana egiteko tresna pedagogikoak



**GAZTEEN EUSKAL
BEHATOKIA OBSERVATORIO VASCO
DE LA JUVENTUD**

Euskadi, auzolana, bien común

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

ENPLEGIKO ETA GIZARTE
POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE EMPLEO
Y POLÍTICAS SOCIALES

Gizon nerabeekin
berdintasun eta
maskulinitatearen
gaineko lana
egiteko tresna
pedagogikoak

TAILERRA: Gizon nerabeekin berdintasun eta maskulinitatearen gaineko lana egiteko tresna pedagogikoak



Non: Bilbon, Gazteen Euskal Behatokiaren egoitzan
Noiz: 2019ko azaroaren 25ean
Ordutegia: 9:00etatik 13:30etara
Hizkuntza: Gaztelera
Leku-kopurua: 24 partaide
Izena emateko epea: 2019ko azaroaren 4tik 15era

Irakaslea:

Juanma Feito Guerrero. Piper Txuriak, berdintasunaren aldeko gizon
elkarteko kidea


Antolatzen duen erakundea:

GAZTEEN EUSKAL BEHATOKIA

Gazteria Zuzendaritza

Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila

944031645 • gaztebehatokia@euskadi.eus




Helburu orokorra:

- Gazteekin lan egiten duten profesionalei ikuspegi eta erreminta pedagogikoak ematea: genero ikuspegitik abiatuz, hezkuntza formal zein informalean, gizon nerabeekin lan egitea errazten dutenak, hain zuzen ere.

Helburu zehatzak:

- Gure kultura eta gizartean bizi diren gizonen bizitza eraikitzen eta baldintzatzen duten genero bidezko sozializazio-mekanismoak identifikatzea.
- Genero maskulinoaren estereotipo eta ezaugarri nagusiak identifikatzea, femeninoekiko oposizioan.
- Baldintzapen guzti hauek gizonen bizitza emozional, mental eta fisikoan dituzten ondorioak ulertzea.
- Eredu patriarkal hegemonikoaren aurrean maskulinitate alternatiboak aurkeztea.
- Gizon nerabeekin lan egiten duten profesionalei erreminta pedagogiko zehatzak helaraztea.

Gizon nerabeekin berdintasun eta maskulinitatearen gaineko lana egiteko tresna pedagogikoak



Gizon nerabeekin
berdintasun eta
maskulinitatearen
gaineko lana
egiteko tresna
pedagogikoak

Metodologia

Zuzendutako eztabaidaren bidez eta talde, bikote zein topaketa taldeetan oinarritutako metodologiak erabiliz, ikasketa esanguratsu eta adierazgarri bat bultzatuko da. Horrez gain, irakaslearen aldetik azalpen eta erakusketa teorikoak ere egingo dira.

Ikastaroaren hartzaileak:

Lehentasuna izango dute gazteekin lan egiten dutenek edo lankidetzan dihardutenek (entitateetan, elkarteetan, administrazio publikoetan, enpresetan, ikastetxeetan, boluntariotzan...). Horrez gain, kontuan izango da izen-ematen hurrenkera.

- **Gazteen arloko langileak** (Gazteentzako Informazioa, udalak, aldundiak, gazte-elkarteak eta beste entitate batzuk).
- **Hezitzaileak**
- **Bigarren hezkuntzako ikastetxeetako orientatzaileak.**